

1 SARRERA

Proposamen hau Maria Ubarretxena alkatearekin izan genuen elkarrizketaren ondorioz sortu da, izan ere, hizketaldi haren ostean garapenerako lankidetzaren elkarrekin bultzatzeko proposamen bat bidaltzeko konpromisoa hartu genuen.

2 AURREKARIAK

Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legearen bigarren xedapen gehigarrian jasotzen denez, "Nahiz eta aurrera egin behar den, gainerako administrazio publikoekin batera, produktu gordinaren % 0,7 betetzeko bidean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak progresiboki gehituko ditu garapen lankidetzarako eta nazioarteko elkartasunerako ekarpenak, 2012ko aurrekontu orokorretan ezarritako gastu osoaren % 0,7 izan daitezten".

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak egindako "Euskal lankidetzaren publikoaren azterketa, 2011-2014: lankidetzaren deszentralizatuari begirada bat" azterlanak erakusten duenez, Legeak ezartzen dituen helburuetatik urrun, joera orokorra izan da lankidetzaren bideratzen den aurrekontua txikitzea.

Aipatutako azterlanean baieztatzen denez, Arrasateko Udalak lankidetzaren bideratu dituen zenbatekoak txikituz joan dira, izan ere, 2011n, %0.453 bideratu zen; 2012an, %0.373; 2013an, %0.209 eta 2014an, %0.169.

Bien bitartean, bigarren mundu gerraz geroztiko migrazio krisirik latzena bizi dugu munduan. 2015ean milioi bat pertsonatik gora iritsi zen itsasoz Europara. Beste batzuk ez dira iritsi. Azken 15 urteetan, 25.000 pertsona baino gehiago hil dira Mediterraneoan. Desplazatuak herenak siriarrak dira eta asiloa eskatzen dutenen artean, 4tik 1 haurrak dira. Baina Europak beste alde batera begiratzen du, mugak ixten ditu eta errefuxiatuak samaldaka kanporatzen ditu.

Gainera, aberastasunaren kontzentrazioak modu iraingarrian jarraitzen du handitzen. Intermon-Oxfamek munduko desigualtasunari buruz argitaratu duen txostenean azaltzen denez, munduko aberatsenek osatzen duten %1ek planetako gainerako %99k baino aberastasun gehiago dauka. 2015ean, soilik 62 pertsonak 3.600 milioi pertsonen besteko aberastasuna zeukaten, eta bost urtean apenas, 62 pertsona aberatsunen aberastasuna %45 hazi da.

Panorama honen aurrean, MUNDUKIDEn eta HARREMANEn dihardugunok gure konpromisoa berriro nahi dugu Afrika, Ertamerika eta Hegoamerikako herrialdeetan garapen endogenoko prozesuak indartzeaz eta laguntza emateaz gainera, gure gizartea eraldatuko duten aldaketak ere sustatzeko.

3 HELBURUAK

Dokumentu honen bitartez, Arrasateko Udalari gonbita egin nahi diogu zeregin honetan gure ondoan egoteko, eta, horretarako, hona hemen gure proposamenak biltzen dituen helburuak:

- 1) Udalak garapenerako lankidetzara bideratzen duen aurrekontua handitzea, legealdiaren amaieran aurrekontu garbiaren (pertsonal gastuak eta zerbitzu gastuak deskontaturik) %0.7ra iritsi dadin ahalegina eginez, Legeak xedatzen duenez.
- 2) Arrasateko herritarrek munduan gertatzen ari diren bidegabekeriez eta desigueltasunaz kontzientzia hartzea, eta arrasatearrak gizartea eraldatzeko proposatzen dugun proiektuarekin identifikatzea.
- 3) Herritar behartsuenen egoera haien jatorrizko herrialdeetan hobetzen laguntzea, eta, horretarako, trebakuntza sustatzea, pertsonen eta beren komunitateen garapen sozioekonomikoan aurrerapausoak egiteko eta emigratu beharrik ez izateko.

Hegoaldeko herri eta komunitateetan zein garapenerako lankidetzako eremuetan dauden behar, lehentasun eta ikuspegi desberdinen aurrean, gure erantzun hobereana emateko Mundukiden bi Lankidetzaren Programa estrategia definitzen ditugu.

Mozambique

1 ESKUALDEKO GARAPEN SOZIO-EKONOMIKOA

Pertsonen gaitasunak sendotuz, garapen pertsonala eta komunitarioa indartzeko.



Azpiegiturak: bideak eta urreztapen sistemak



Mikrokredituak



Nekazar garapena

Brasil eta Kuba

2 EKONOMIA ETA GIZARTE EKONOMIA SENDOTZEA

Lidertotza sendoa eta eraldaketa sozialerako bokazioa duten talde egituratuetan, enpresa arloa, antolaketa eta kooperatibagintza indartuko duten programekin.



Kudeaketa eta kooperatibagintzan formakuntza



Aktibitate berrien sorrerarako laguntza



Enpresa sozialentzako aholkularitza

4 PROPOSAMENA

Aurkezten dugun proposamena 2017-19 aldirako hitzarmen bat da, non urteko ekarpena 15.000 eurokoa izango den, Udaletxeak momentuan daukan ONGra bideratzen duen partida ahal den heinean mantentzeko konpromisoarekin. MUNDUKIDE, HARREMANen laguntzarekin, Mozambike iparraldean 2000. urteaz geroztik bultzatzen dabilen proiektuari laguntza ematea izango da ekarpen honen helburua.

4.1 ENTITATEAK

- A. MUNDUKIDE FUNDAZIOA GKE bat da, 1999tik MONDRAGONeko kooperatiben babesarekin hegoaldeko herrien garapen autokudeatu eta integrala sustatzeaz gain, gure gizartean ere aldaketak bultzatzen diharduena. Fundazioaren helbidea hau da: Zarugalde 30.
- B. HARREMAN GKEak 20 urte baino gehiago dauka. HARREMANek hainbat jarduera lantzen ditu Arrasateko herritarrek pertsona behartsuenei begietara begiratu eta haien lekuan jartzen ikasiko duten itxaropen eta nahiarekin. HARREMANen helbidea: Ferrerías kalea 40, behea.

4.2 PROIEKTUA

Fundação Mundukide 2000. urteaz geroztik ari da lanean Mozambike iparraldeko landa inguruneko herritarren garapean sozioekonomikoa helburu. Programaren helburu orokorra da Pobretasun Absolutua Murrizteko Mozambikeko Gobernuak abiarazi zuen Ekintza Planari jarraituz (PARPA), pobrezia kontrako borrokan laguntzea, landa inguruneko biztanleen diru sarrerak modu sostengarri eta bidezkoan handituz.

Urte hauetan, honako hauek landu dira batez ere: a) hirugarren mailako errepideen irekiera (2002-2010), non oso inpaktu positiboa lortu baita; b) landa inguruneko mikroenpresen sustapena (2002-2008), emaitza apalekin, eta c) nekazaritzako produktibitatea handitzea (2005etik gaur arte), sekulako inpaktuarekin.

Programaren xedea hau da: pertsonen beren egoera hobetzeko gaitasuna izatea, hau da, bizitza duin bat izateko behar dena ekoizteko behar diren ezagutzak, tresnak, baliabideak eta testuingurua edukitzea.

2011. urteaz geroztik, lana familia nekazaritzaren sektorera bideratuta dago zeharo. Funtsezko estrategia zera da: nekazaritzako lanaren errendimendua handituko duten kulturak eta teknikak sustatzea; erabilera bikoitzeko produkzioen kulturak –elikadurazkoa eta komertziala– bultzatzea, eta merkatu egonkor eta gertukoak sustatzea.

Geografikoki, Cabo Delgado probintziako hiru barrutitan (Montepuez, Balama eta Namuno) eta Niassa probintziako bi barrutitan (Marrupa eta Majune) dihardugu.

Mozambique



Programaren helburua, tokiko herritarrek errenta sortzeko duten gaitasuna handitzea da. Horretarako, berdintasunean eta jasangarritasunean oinarritutako garapen ekonomikoa sustatuz, bertako pertsonak ahalik eta autonomo eta burujabeen izan daitezzen.

Nekazal garapena

Mikrokredituak
Baserritarrek, ekoizpena hobetzeko erabiltzen dute mikrokreditu sistema.

Asistentzia teknikoa
Bertako nekazal erakundeen elkarlanaz, asistentzia teknikoa.

57.390
onuradun

%53 emakumeak
Ekoizpena eta inbertsioa
Produktzioa: 4.000.000 €
Inbertsioa: 973.645 €

Azplegiturak

Ureztatze sistema
Urte osoko nekazal ekoizpena errazten du, ondorioz biztanleen elikadura hobetuaz.

LORTUTAKO HELBURUAK

KOOPERANTEAK

Juanjo Navarro Sanchez
(Marrupa)

Nelda Vila Lago
(Balama)

Adrián Lamas Montes
(Montepuez)

Beñat Arzadun Olalzola
(Majune)

Kultura eta teknika horiek sustatzeko prozesuan, teknologia masiboki transferitzen da, herrialdean nekazaritza arloan aurreratuago dabilzan inguruneetatik abiatu eta Niassa eta Cabo Delgado barneko barrutietaraino. Horretarako, beste probintzia batzuetako nekazarien elkarteekin lankidetzan dihardugu. Elkarte horietako kideak tokiko nekazariekin batera eguneroko jardunean laguntzera joaten dira eta, hala, zuzenean gauzatzen da nekazari batetik besterako ezagutza transferentzia.

Era berean, teknika berriei dagokienez, intsumoak, tresnak eta bestelako ekipamenduak behar dira, eta tokiko merkatuan ez dago holakorik. Mundukidek bideratzaile eginkizuna betetzen du, intsumo eta material horiek eskuratzeko hornitzaile onenak bilatuz, garraioaz eta biltegiatzeaz arduratuz eta bidezko prezioan banatzen lagunduz.



Lucia Felisberto Nipapala (Marrupako nekazaria): Mundukideko lan-taz, batez ere, gure familien ekonomian duen eragina eta illusioz aurrera egiteko eskeintzen digun aukera azpimarratuko nuke.



2015 EKINTZEN EMAITZA

Ekintza	Bitartekoak	Emaitza	Emakumeak
 Ureztatzea	376 ureztatze-ko mikrosistema	1.705 ureztatutako hektarea	
 Aholkularitza teknikoa	10 nekazal erakunderekin harremanetan	398 Instruktorre	122 emakume Instruktorre
 Nekazal ekolozpena	Kultura berrien sustapena (reno patata, boer babarruna, mantega) sosamo eta anakardo ekotzpenarekin batera.	Programa, 134.472€tan baloratutako insumoen (haziak, lan erramintak) bitartekaria izan da nekazariekin. Ondorioz, nekazarfen uztza 4.000.000 €tan baloratu da 2015. urtean.	3.392 emakume parte hartzaile

Programa esponentzialki hasten ari da. 2015ean, ureztatutako lursailen %271ko hazkundearekin, %274 erositako insumoetan (haziak, motobonbak, lan erramintak), eta %167 nekazariaren partehartzean. Mundukidek programan inbertitutako euro bakoitzeko, nekazari bakoitzak garbi 4 € irabazi ditu.

HELBURUAK 2016

Biztanleentzat urte guztiko nekazaritza bermatuko duen behinbetiko ureztatze sistema erakli eta kudeatzea. Ureztatze sistema berri bakoitzak sortzen duen lan dinamika, nekazal eremuko 80 lan postu berri sortzearen parekoa litzateke.



Neida Vila Lago:

5 edo 10 urteko epean, baseritarren erdiak behintzat herrialdeko soldata minimoaren porero listea da Mundukideren helburua. Gaur egun helburuaren oso azpitik egon arren, badira milaka familia miseriatik po-beziarako pausoa ematen ari direnak.

Parte hartzaileek egindako inbertsioaren hazkundera oso positiboa da. Izan ere, horixe da kultura eta teknika berriek ekarritako emaitza onen adierazlerik onena. Hala ez balitz, ez litzukete inbertituko beren baliabide urriak, gero eta gehiago, nekazaritza oro har eta halako kulturetan bereziki. Intsumoak eta materialak bideratzeari dagokionez, programaren hazkundera baditu hainbat erronka:

Aplikaturako intsumoen bolumen osoa oraindik ere oso txikia da sektore komertziala erakartzeko; beraz, oraingoz, programak derrigorrez jarraitu behar du behar diren intsumoak bideratzen. Gainera, nabarmendu beharra dago programaren eginkizuna ez dela intsumo horiek saltzera mugatzen. Irakasleek kudeatzen dituzte intsumoak. Izan ere, irakasleok ekoizleak bizi diren komunitate berberetan bizi dira, eta intsumoak egoki erabiltzen laguntzen diete (noiz erabili motoponpa, noiz eta nola erein...). Gainera, askotan, intsumoen entrega kreditu bidez egiten da.

Hori dela eta, programak intsumoak eskuratu eta banatzeko daukan fondoa handitu egin beharko litzateke. Mundukidek intsumoak erosten dituenetik parte hartzaileek ordaindu arteko aldia, batez beste, 3 hiletik eta 12ra bitartean dabil. Intsumoen salmenta berreskuratzeke igarotzen den

denbora eta parte hartzaile kopuruaren hazkunde handia kontuan hartuta, intsumoak erosteko finantzaketa bihurtu zaigu programaren zailtasun eta mugapen handienetakoa.

4.3 EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Urteko jarraipen txosten bat eta amaierako ebaluazioa eta konklusioak bilduko dituen txosten bat egitea proposatzen da. Orobat, urtean behin udalbatzako kideren batek proiektua bisitatzeko aukera izatea proposatzen da; eta bisitaldian arrasatearren bat ere sartzea proposatzen da. Bisita hauek sortuko lituzketen kostuak hitzarmen honetatik at daude, eta kasu bakoitza nola kudeatu aztertuko da.

Aipatu bi txostenetan entitatearen jarduera globalaren nahiz diruz lagundutako proiektuaren inguruko memoria jasoko da, eta bertan jasoko dira egondako gastu eta diru sarrerak, diruz lagundutako jarduera egitearen ondoriozko gastuen fakturekin batera, eta baita egindako jardueretan lortutako emaitzen balorazioa ere.

Memoriek, betiere, egindako jardueren gaineko azalpenez gain eta haien buruzko balorazioaz gain, dokumentazio grafikoa eduki behar dute (kartelak, programak, publizitatea, etab.) eta, egonez gero, baita ikus-entzunezkoa ere (bideoak, argazkiak, etab.).

4.4 ZABALKUNDEA


Zabalkunde jardueren bidez, Arrasate proiektuaren helburuekin identifikatzea gura dugu, Arrasatek proiektua bere sentitzea gura dugu. Eta horretarako, proiektua arrasatearren artean zabaltzeko, zera proposatzen dugu:

- Urtean dibulgazio egun bat antolatzea, eta egun horretan, kanpoan diharduen pertsona batek azaltzea zelakoa den dena delako herrialdeko biztanleen egoera, nola ari den proiektua garatzen eta zer ondorio ateratzen diren proiektua gauzatzearekin batera. Egundorretan, proiektua bisitatu du(t)en pertson(ar)en ikuspegiak ere bere lekua izango luke.
- Era berean, beste sentsibilizazio eta dibulgazio jarduera bat ere proposatzen da, urtero ekainaren hasieran izaten den Elkartasun Egunarekin bat eginez.
- Halaber, iraupen laburreko bideo bat egitea proposatzen da eta dibulgazio egunean Kulturaten botako litzateke.

Arrasaten, 2017-ko Urtarrilaren 1an,



Javier Ruiz de Munain
ONG Harreman



Josu Urrutia
Mundukide